

ZUZENKETA TEKNIKOA

Miren Albistur Garmendiak, Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluekin bat etorriz, ARAU PROPOSAMEN HAU AURKEZTEN DU IBILGAILUAK APARKATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA ALDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasunari dagokionez, beharrezkoa da gure kaleetan ahalik eta kutsadura gutxien igorriko duten ibilgailuak sortzeko teknologiak sustatzea gunetzat hartzea. Horrelako ibilgailuei esker, etorkizun hurbil samarrean, ibilgailuek igorritako kutsadura gutxitu ahal izango da neurri handi batean eta, horren ondorioz, gure hiriak aldatu egingo dira.

Ildo horretan, gero eta hiritar gehiagok erosten dituzte gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak, etorkizunari aurre hartzeko, nahiz eta gure hirian ez dugun egiazko azpiegiturarik gasolioz edo gasolinaz ibiltzen diren ibilgailuek duten bezala.

Hala ere, errealitate berri hori hiritarren ohituretan egiaztatzen ari da, eta erakundeek emandako arauetan ere islatzen hasi dira. Testuinguru horretan, hiri askotan, fenomeno hori arautzen ari dira eta beren ordenantzetan bildu; gure hirian ere, hala gertatzen da; izan ere, Ibilgailuen gaineko Zergaren 10. artikuluan, zenbait hobari ematen dira gutxien kutsatzen duten motorrekin funtzionatzen duten ibilgailuetarako (ikus 10.3 artikulua).

Horri dagokionez, uste dugu zerga pizgarri horrek kutsadura gutxiago sortzen duten ibilgailuak erostea bultzatuko duela, eta, hala, horrelako ibilgailuen gidariei antzeko "hobari" bat ezarri behar zaiela gure hiriko bide publikoan aparkatzeagatik ordaintzen duten tasan. Eta beste hiri batzuetan ezartzen ari diren neurriekin bat etorrira.

Ibilgailuaren gidariak ordaintzen duen tasaren TARIFA konpentsatzeko, sortutako kutsaduraren arabera Trafiko Zuzendaritza Nagusiak automobileren buruz egiten duen sailkapenari jarraitzea proposatzen dugu. Hala, lau kategoria bereiziko dira: Zero igorpen, Eko, C eta B.

Talde Popularrak ERABAKI hau hartzea proposatzen dio Udalbatzari:

- Bidezkoztat jotzea Trakzio Mekanikozko Ibilgailuak Udal Bide Publikoetan Aparkatzeagatik Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatua

Donostia, 2018ko martxoaren 7a

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea